

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Sendero Vivo-ren xede-bezeroa ez da talde isolatu bat, denek parte hartzen dute ikuspegi partekatu baten arabera: ekitaldiak modu arduratsuan eta kulturalki aberatsa antolatzeko interesa. Horregatik, gure merkatua ez da masiboa, baizik eta segmentatua, bezero mota desberdinak baitaude, bakoitzak behar eta motibazio propioak ditu eta guztiak jasangarritasuna ardatz duen planteamendura hurbiltzen dira.

Lehen sektore nagusia ospakizun pertsonalak antolatzen dituzten bikoteak dira. Ezkontza edo urteurren berezi bat antolatzen duten hainbat pertsonak naturarekiko errespetua, estetika ondo zaindua eta tokiko kulturaren oinarria bilatzen dute. Normalean 25 eta 40 urte bitarteko bikoteak izaten dira, eta ekitaldiak berezko nortasuna izatea nahi dute, gehiegizko kontsumoa eta hondakinak saihestuz. Bikote hauek gero eta kontzienteagoak dira dekorazio arduratsuz, gastronomia lokalaren promozioaren garrantziaz eta inguruko hornitzaileekin lankidetzan aritzeaz. Hori dela eta, gure ikuspegiarekin harmonian bat egiten dute nolabait.

Bigarren segmentua enpresak eta profesionalen erakundeak dira. Ekitaldi korporatiboek kongresuak, jardunaldiak, produktu-aurrezpenak edo azoka txikiak ezinbesteko dute jasangarritasun irizpideak betetzeko presio handiagoa jasotzen dutelako. Enpresak berak ESG (Ambiental, Social y Gobernanza) enpresa baten jarduna eta eragina ebaluatzeko erabiltzen diren irizpideak dira, finantza-arloaz harago, enpresaren iraunkortasunean eta erantzukizunean oinarrituta. Horregatik, Sendero Vivo-ak eskaintzen duen jarraipen eta txosten sistema oso erakargarria bihurtzen da. Aldi berean, inguruko komunitateak eta kultura lokalean integratzean, aukera ona da enpresek beren irudi korporatiboa modu positiboan sendotzeko.

Hirugarren segmentua administrazio publikoa eta erakunde lokalek osatzen dute. Turismo bulegoak, udalak edo kultur-etxeak maiz arduratzen dira hiriko edo eskualdeko jaialdi eta topaketa instituzionalen plangintza osatzeaz. Ekitaldi horiek ingurumenaren zaintzarekin koherentzia izatea gero eta gehiago eskatzen dute, askotan tokiko kulturaren presentzia indartu nahi dute, herriarren parte-hartzea eta turismo jasangarria sustatzeko. Sendero Vivo-ren proposamenek horiek modu integratuan jasotzen dituzte.

Azkenik, gure merkatua osatzen duten beste talde garrantzitsu bat turismoarekin lotutako erakundeak eta taldeak dira. Kolonia aniztasun kultural eta naturala handia duen herrialdea da, eta inbertsio handiagoa eskatzen da esperientzia errealak, bertako eta ingurumenarekiko errespetuaren aldetik. Agentzia turistikoek eta talde txikiek bilatzen dute ingurumen inpaktua menderatuz, tokiko musika, gastronomia eta artisautzarekin lotutako ekintzak antolatzea. Sendero Vivo-k aukera eskaintzen du esperientzia originalak sortzeko, kontsumo arduratsuan oinarrituta.

Segmentu guzti hauek elkarren artean desberdinak izan arren, balio antzekoak dituzte: ingurumenarekiko konpromisoa, kulturaren errespetua eta esperientzia bikaina lortzeko. Horregatik, Sendero Vivo-ren merkatuak ez da nitxo bakarrean oinarritzen, baina ez da masiboa ere. Segmentu desberdinak dira, baina denek bat egiten dute: ekitaldiak era

berritzaile, etiko eta jasangarrian antolatzeko beharra.